

HITZAURREA

Has gaitezen ilunak izaten, gauzak piska bat argituz joateko. Liburu bat irakurri baino lehen, buruan, liburuak eskatzen dituen galderak, behar lirateke eduki. Goazen, bada, izenburuak agintzen duen labirintoan, galdera batzuk bilatzera Ariadneren hari gisa.

Filosofia politiko modernoan legitimitatearen lehen eta azken printzipioa herri subiranoaren nahia da. Horregatik, Konstituzioaren gainetik, are gutxiago kontra, ezer ezin da egon herri subirano beraren nahia berriro ez bada. Herria da Konstituzioaren bermea eta Konstituzioa herriaren bermea.

Herria, ordea, zertazert diferente asko da, izan, edo izan daiteke. Zer den azkeneko finean, politikoki, zinetan ez ei dago inon konkretuki hautematerik eta eskukatzerik, Konstituzioan baino. Konstituzioa da, esaten da, herri subiranoaren kontzientzia eta nahiaren agerpena: herri subiranoak Konstituzioan adierazi du, h. d., berak bozeman du eta oneman du, zer den bera eta zein eraketa molde gura duen bere biziera komun politikoaren oinarritako. Nolabait, bada, Konstituzioa herria da eta herria Konstituzioa. Herri politikoak bere zer denaren eta nahiaren agerketa Konstituzioan du eta Konstituzioak bere balioa herrian.

Liburu honen tituluak berben eta esanahien joanetorri ziribikari hori errepikatzen dizu: Herria, Hiria, Nazioa... Konstituzioa, subirania. Maiz topatu ohi ditugunak dira egungo polemiketan, eta denak sorgin kurubil bat egiten topatu ohi ditugu, arrazoibidea ia beti, asko ibili eta gero, atzera hasierako puntu berean bukatu behar izaten dugula. Nazio esaten den Hiria (*Polis*), herria da bere forma po-

litikoan; herri hori Konstituzioarekin bihurtzen omen da Nazio: Konstituzioarekin hartzen dizu herriak –ematen dio bere buruari, esan ohi da– izaera eta eite politikoa, hiritarra, nazionala.

Herriaren kontzeptuak dirudi silogismo demokratikoaren premisa handia, «demoak». Zer da, beraz, herria?

Egia esateko, zerbait metafisiko samarra. Erdara eskolastikoan esateko, Konstituzioaren eta, beraz, Nazio edo Hiriaren sub/stantzia edo sub/jektu, politikoaen ni transzendental edo lehen materia gisako zer hori da herria egungo diskurtso demokratikoan: bere burua berak egiten ei duen ente politikoa. Ez historiak, ohitura eta tradizioen jarauntsiak, eta are gutxiago hizkuntzak, etab., egiten dute herria (politikoa); honek, berak bere burua sortu egiten du, eta hain zuzen Konstituzio bat sortuz. Hori da Hiriaren –politikaren– hastapen absolutua; legitimitate ororen iturria. Ondorioz, diskurtso kuasiteologiko horretan –Jainkoa zen lehenago bere buruaren egile bakarra– herria esatea, Konstituzioa esatea adinatsu da; eta Konstituzioa, herriaren bere buruaren kreaizio agerikoa.

Baina zer firirika da hori, herria eta Konstituzioarena, batak besteari oinarri eta legitimitate ematen? Biak bata bestearen kreaizaile eta kreatura?

Izan ere, soegiten dugu, eta errealitatean Espainiako Konstituzioa, esaterako, ez da Hendaiaiko herriaren nahiaren adierazpena, Irungo herriarena bai omen. Frantziako Konstituzioa, alderantziz. Beraz, Konstituzioak ez dirudi herriaren, beste gabe, nahiaren adierazpena, baizik herri-jende mugartekotu jakin baten nahiarena, onenean ere. Konstituzio espainola Irunerainoko herriarena da. Zeinek ebaki du nondik noraino den herri bat eta nondik aurrera ez? Zein irizpiderekin?, etab., etab. Kontua da, Tarifatik

Hondarribiara herri bat omen dela, eta Hendaiatik aurrera beste bat. Eta herriotako bakoitzak ahala duela bere burua zer den erabakitzeko.

Horretarako, estreina, andre-gizon herritarra hiritar bihurtzen da; bestela, izan –zaharrak, protestanteak, katalanak, homosexualak–, herritar jendea zertazer larregi eta diferenteegia da. Beraz, hiritarrak ez dira herritarrak beste gabe. Soildu beharra dago existentzia historikook esentzia politiko huts-hutsera: herritar konkretuak, denak berdinak izango diren hiritar abstraktura. Herritarra hiritar soiltara bihurturik, tarifarra eta hondarribiarra berdinak dira hiritar gisa; irundarra eta hendaiarra, aldiz, izan litezke herritar bezainbatean berdinak –hizkuntza, etab., berdinekoak–, baina hiritar ezberdinak dira: eta herritarrak politikoki ez du deus esan gura –teoria honetan–, subjektu politikoa hiritarra da.

Nolatan hori? Zer da hiritarra? Hori ez da metafisika gutxiago

Printzipioz, hiritarra da herritarra bera, ken nor bihurtzen duen oro; edo positiboan formulaturik, herritarra, denak bat eta berdinak bihurtzen dituen zer horretara soil-soildua: funtsen-funtsenean, giza izaeran bizi eta biziraun ahal izan; h. d., kontzientzia izan, nahi ahal izan, etab. Baina kontzientzia, oraindik ezerena izan gabe; eta nahi izan ere, oraindik ezer nahi gabe. Zeren-eta, zerbait konkretu ohartu edo nahi lezan orduko, diferentziatu egingo bailuke. Eta hiritar konstituziogileak, hiritar bezainbatean, beste guztien berdin-berdina izan behar dizu. Beraz, ez da emakumea edo gizona, agurea, gaztea; ez da euskalduna edo erdalduna (ez da ezein hizkuntzatan mintzo: soilik mintzatu ahala du); ez da tradizio batean edo bestean hazia, ez du historiarik eta kulturarik (zeren-eta ezin da historia bat edo kultura bat

ukan bestearen diferentea izan gabe), etab. Hiritar purua da: nor bat, boz bat, operazioa ahalgarritzeko xifra, horixe da hiritarra. Bitxia da, oraindik Hiririk ez baitaukagu, eta hiritarra bai.

Baina jarrai dezagun hiritarrarekin. Hiritarra, funtsean, gizaki huts-hutsa dela, esango genuke. Bakarrik, bat, esentzia politiko soilera murriztua: posibilitate bat, gero han eta hemen modu batean edo bestean konkretatu ahalko dena politikan. Eta bakarrik, bigarren, posibilitate hori gizakitasun edo gizon-emakume konkretu bilakatzekoa, teorian mundu guztian berdina suposatzen duguna, de fakto hiritarrean beti norabide aurrezarri jakin batean dago pentsatua, alegia beti Estatu jakin bati egiten dio erreferentzia bere posibilitate bezala: bitxiki, oraindik hori ez dagoela, imajinatzen duguna, baina zein nongo Estatua izan beharra duen, isilpean auresuposatzen ari garena. Hau da, teorian ere ezein gizaki ez da munduan edonongo hiritarra izan litekeen norbait –kosmopolitismoa, estriktoki, «zeinu» edo figura teoriko bat da–; hiritarra (konstituziogilea), Estatu potentzial jakin batekoa da beti hiritarra.

Errigortsuki, Konstituzioa ez da herritarren nahiaren espresioa, hiritarrena baizik. Horregatik, ia deus ez den hiritar hori izateko bulda, posibilitate huts hori, andre-gizon izatekoa, pribilegio handia da. Zeren eta, oraindik ezertarako eskubiderik ez ahalik duen ezdeus horrek, laster bere buruari egundoko eskubideak eta ahalak eman ahal izango dizkio, Konstituzio bat bozeman orduko. Nire aldamenean urteak bizi den eta lanegiten duen etorkin marokoarra, aldiz, berak nik ez bezala bizi nahi arren eta nahiahalak egin arren hiritarra izateko, ezin da izan ia deusez hori, razionala eta logikoa behintzat ez den arrazoiren bategatik. Beraz, hiritarra hain gizaki huts-hutsa ere ez da, eta posibilitate ireki-irekia ere ez:

baizik posibilitate bat, a) batzuei a priori ukatua eta beste batzuei erreserbatua; eta hauentzat ere hartarainoxe erreserbatua, ezen paradoxalki, herritarrak berak eskubiderik ez dizu bere burua hiritar, berak nahi duen moduko eta berak nahi duen lagunekin, deklaratzeko (nik hendaiarrekin batera izan nahi nuke hiritar, eta ez tarifarrekin); beste norbaitek deklaraten dizu zein-nolako hiritarra izan beharra daukazun; eta b) posibilitate bat da priori guztiz norabidatua, hots, nahitaez erreferitua Hiri edo Estatu jakin bati –eta Estatu hori teoriaran oraindik ez dago (hiritarrak sortu behar omen dizu)!

Nola edo halakoa badaukagu hiritarra, orain Hiria behar dugu: Konstituzioa. Teoriaren teoriaran begitantzen du, hiritarraren kontzeptua begiratu eta, Konstituzioak bat eta berdina izan behar lukeela mundu guztian: hiritar soil-soilaren Konstituzioa. Bitxikeria logikoekin jarraitzeko, bada, Konstituzio espainola oinarritzen duen hiritarren herri subiranoak (memoria historikorik eta hizkuntzarik eta, ez ei zuen horrek), bozeman eta oneman bide du, berak bere Hirian errege bat nahi duela Estatuburu, Espainiaren banaezintasuna Armadak garantizatua, Konstituzioaren teilapeko guztiek espainolez hitzegiten jakitea, etab., etab. Konstituzio frantsesa oinarritu duen hiritarren herri subiranoari –herria besterik ez bera ere (nor bat, boz bat: norbanakotasun puruen suma), eta bera ere subiranoa besterik ez (bere nahi indibidual hutsaren jabe)–, bestelako ideia batzuk bururatu bide zaizkio bozkatzeko instantean, ez dakigu zein kausagatik, bere subiraniaren espresio oinarritzotzat balio izateko printzipio multzo gisa. Berriro, norbanako hutsaren kontzeptuan ez dagoen arrazoiren batengatik, hiritarren herri edo norbanako soilen batuketa bakoitzak bere tankera eman dio subiraniari (Konstituzioari). H. d., herri demokratiko denak berdin hiritarren herri eta berdin subiranoak dira; baina bozketek emaitzaturiko

subiraniak, denak ezberdinak. Harrigarria da, nahiz eta abiapuntuan hiritar abstraktu berdin-berdinak omen zeuden, gero, bozkatzeko unea beste arrazoirik gabe, Ayamonten eta Hondarribian denak hain nahi berdinak suertatzea, eta denak hain bestelakoak Irunen eta Hendaian.

Alegia, harrigarria, «filosofo» batzuek hori hala dela guri sinestarazi nahi izatea da. Kasu bakoitz eta guztietan ebidentea zera baita: norbaitek aurridatzi diola herri subiranoari, zein zen herri subiranoa, eta horrek bozkaldiko instantean bere nahi subiranoa zer behar zuen nahi izan izan zedila. Beraz, galdera ez da, zer da herria, baizik: non fabrikatzen da herria, eta herri subiranoaren nahia eta horren modua? Zein misteriozko auresubiranok nongo aurrekameretan aurrerabakitzen du, herri subiranoak doi-doi zein moldetako subirania bere-berea bezala bozeman eta oneman ahal izatea duen zilegi nahi izatea?

Frase zilibikariak, bai; baina errealitatea bera baitabil hemen zilibika. Fikzioa egin nahi da, ez dagoen zer edo norbaitek ipintzen duela zerbait, eta ipinitako zerbaita bera dela ipintzailea. Konstituzioaren historia horretan zein da subirano lehen-lehenbizikoa, inon aipatu gabekoa? Bera baita de fakto ezarri duena, bai herria hemendik harainokoxea dela eta ez gutxiago, eta bai subiranoa herri hori dela, eta bai herriaren subirania molde honetakoxea, ez bestelakoa: hots, eraikuntza politiko guztiaren egiaz oinarritzko guzti-guztia, haren funtsa eta kanpoko irudia ere barne. Zein da herria baino lehenagoko, Konstituzioa baino lehenagoko subirano ezkutu izengabeko hori, herria berak egiten duena, herriak Konstituzioa egiteko, eta Konstituzioa ezkutuko harexen legitimazio publiko doia izateko?

Zeinek erabaki du, non hasten den eta bukatzen den, (a) lehenbizi ahala bera, nahi bat kolektibo eta bakarra eduki

ahal izateko Cantalapiedratar eta Beratar guztiek, Saratarrei aldiz ezinezkoa izatea nahi hori bera partekatzea; baina, gero, (b) aurreneko haiek edukitzea eskubidea ere –Konstituziorik egon baino lehen gainera: herriaren beraren eta eskubide guztien iturria omen dena!–, euren nahi amankomunari formulazio publiko eta obligatzaile bat emateko, aldiz kilometro batzuk haragokoak edo aldameneko marokoarra a priori eskludituak direlarik? Eta (d), zeinek bideratzen du emaitza mirarizkoa, bozketara hizkuntza jakin bat, historia jakin bat, etab., gabe sartu diren hiritar puru abstraktuak, handik denak hizkuntza, memoria historiko, kultura, literatura eta zer guzti-guztiak kasualitatez etnia batberekoekin ateratzea, bestelako mila konbinazio posibletarik bat ere gabe, etnia baten memoria, bestearen hizkuntza, etab., edo ezaugarri guztiak bakoitzak bereak? Frantzian denak frankofonoak, etab., eta Santa Ioana d'Arc birjinaren haurrak; Espainian denak hispanofonoak.

Alegia, herriak egiten badu Konstituzioa, zeinek egiten du herria? Konstituzioak? Konstituzioa egon baino lehen, eta herria egon baino lehen, idatzia dago zein eta noraino den herria, eta idatzia dago zein den hark edukitzeko eskubide duen Konstituzioa. Oiloaren eta arrautzaren ipuintxoan soluzioa, ipuinak ezkutatu egiten duen bi-biak baino lehenagoko oilarrean dago: eta oilarra da, hain zuzen, herriaren eta Konstituzioaren kontu honetan ere inola aipatu nahi izaten ez dena.

Praktikoak izatearren, onar daiteke elkarbizitzaren oinarritako Itun Sozial baten beharra, grosso modo Hobbes, Locke, Rousseau-ren konbentzioen zentzuan. Halako itunaren Konstituzioak nahitaez oso testu laburra izan beharko luke nolana ere. Zeinek puzten ditu Konstituzioak hainbeste orri eta artikulua eta paragrafotaraino, oinarritzko printzipio

gutxien legitimitatearen arrimoan, interes partikular zikin askoren legitimitate exijentzia, testu berean pasarazteraino?

Galderak eta galderak

Baina ez da, esplikaziorik ez dutela. Gogoeta politiko saio honen egilea esplikazioak teoria filosofikoaren historian induskatzera mugatu da. Armen arrazoiak ere, monarkiak eta errepublikak, anexioak eta konkistak gogoratzen dizkigu, baina bidezurrean bakarrik. Liburutxoa filosofikoa da. Esan gura da, teorikoa. Baina gaur-gaurkoa, egunari lotua; eta bitxia eta zorrotza. Batzuetan pentsatzen da, gogoeta filosofikoek ez dutela zerikusirik egunoroko katramilekin. Hau behintzat katramila horiei pasionatuki itsatsi-itsatsia dator. Egunoroko polemiken aparretan galdu gabe, ordea, tertulianoen leloek —razionalitate agintzailearen pilulak jendaurrearen kontsumorako— barruan gordetzen duten pentsamendua zulatzen du; hiritarra, demokrazia, Konstituzioa, kontzeptu ederrekin estali nahi den tradizio autoritarioa. Demokrazian ere dena ez baita demokratikoa. Kontzeptuaketetan bertan hasten da indarkeria, dominazioa.

Eskuartean duzun saio kritikoak aspaldidaniko ilunbeok argiketan lagunduko dizu: teoria politikoa nola joan den ekoitzi eta ekoitziz hiritarra, herritarra geroz eta bazterrerago baztertuz. Hasieratik bertatik herriaren bi kontzeptu dabilela, erakusten digu: herria «ethnos» eta herria «demos». Herriaren bi kontzeptuokin jarraitzen dugula Aro Modernoan eta oraindik ere borrokan: bat «hiritarraren» herri abstraktua, historiko-politikoa, artifiziala (nazio konstituzionala); bestea historiko-kulturala, nolabait «naturala» (nazio etnikoa). Hura, monarkien produktua, dinastiondoko herria: konkistaz eta bortxaz, trukez, ezkontzaz bildu eta kontrol politiko-administratibo baten pean lotu jendearena, banako abstraktuen

suma; hau, hizkuntzaz, kulturaz, dantzaz eta folklorez, mitoz, bera elkarbildu dena komunitatean, eta frontera poliziarik inon ipini ez duena auzo herrienganako.

Dinastiek bortxaz eta bortxaketaz beren menpean bildu, nahastu eta berdindu herri hori, egun batez erregearen aurka jaiki eta hura uzkaile du, eta lepoa moztu. Orain, bere buruaren errege, bere burua ez dizu aitortu gura monarkia-
ren obra eta maiorazkotzat, erregearen haurtzat. Eta hala, erregearen eta nobleen legitimitatea jaiotzak funtsatzen zuen eran –odol urdinak–, herri iraultzaileak Iraultzaren egunean bere burutik jaioa bezala nobletu dizu bere burua. (Herriak ala oilarrak?)

Azkenik, bada, hiritarrak –«jaioa» ez, baino beste edozer gauza den horrek– «natio» kontzeptua ere harrapatu eta beretzat monopolizatu gura du: nazio moderno zinezkoa hiritarra bakarrak omen da, eta dinastiondoko nazioa osatzen duen bezainbatean soilik da gizon-emakumea hiritarra; nazio zaharra, mesprezuz nazio etnikoa deitzen dena, ez da ezer, antropologoen entretenigarri ez bada. Herri/ethnos horrek ez ei du berak bere burua hiritar deklaratu eta bere buruari Konstituzio bat emateko «eskubiderik», beste hartan urtua ez bada. Hiritarra da, bai, baina zein-nolako hiritarra izatea daukan eta ez, bestek erabakitzen dio.

Nondik nora sortu da diskurtso hau? X. Arregiren araketak esesten duen satorra hori da. Alegia, nondik dator dogma hori, herri etnikoa ez dela subjektu politikoa, subjektu politiko burujabea izateko kontzientzia eta nahia duenean ere, baizik bai herri zibikoa bakarrak, monarkien obra askatasun zanpatzailearen oinordekoa; eta are, herri etnikoa ez dela existitu ere egiten politikoki? Historiak hala erabaki du, esaten da. Zein da historia hori?

Historia baino, hiri zibikoaren egilearen izen egiazkoa-goa, Botere da apika –mila izen ageriko munstro ezkutua, Hobbes-en esanean–; kasu honetan bere burua historian ezkututzen duena. Nolabait egia da: Atenasko demokrazian herritar esklaboa, metekoa, andrazkoa ez zela hiritarra erabaki zuen Boterearen historia da, gaur erabakitzen jarraitzen duena beste era batean, herritar galegoa, katalana, euskalduna ez dela –galego, katalan, euskaldun gisa– hiritarra, ez dela bere buruaren jabe izateko posibilitatea. Hiriaren begiralea, aspal-aspaldidanik, Boterea da. Botereak beti berak asmatu izan du bere subjektua.

Boterea da «historia duena», eta a, b, d erabakitzeke ahalmena. Atenasko jainkosa begiralea –Athena Párthenos, armatua sortu bide zena Zeusen burutik– esku batean lantza eta bestean ezkutu borobil handia, harkaitz gainean tente bere Partenoi barruan gordea zegoen, eta dago, behean herri xumea lanean ari. Demokraziak haren Hiriari, Nazioari, Konstituzioari, olibondoaren kultu erlijiosoa opa dio, eta panatenea jaiak ospatzen dizkio. Atenasen hasi da historia hori.

JOXE AZURMENDI

1. «Txilibikarie» Zegaman (eta ez «rodando» bakarrik, baizik ziribika dabilen objektua ere bai: haurren jolasteko «aroa», adbz.).
2. Firurika - «Piririka» Zegaman (eta berriro: ez «girando» bakarrik, etab.: «piririka bat»).